

**LEHENTASUNEZ ESLEITZEKO  
ESKUBIDEA**

2023-2024 ikasturte-hasierako esleipenetan hautagai bakoitzari lehentasunez esleitzeko eskubidea ematen dion lanpostuaren tipologia behin betiko argitaratzea

2023ko maiatzaren 19an, ordezkapen-zerrendetarako hautagai bakoitzaren Hezigunea atarian argitaratu zen 2023-2024 ikasturte-hasierako esleipenetan ikastetxean lehentasunezko esleipen-eskubidea emango duen behin-behineko lanpostuaren tipologia. Gainera, erreklamazioak egiteko epe bat eman zen [Hezigunea](#)-n gaitutako formularioaren bidez, antzemandako edozein akats alegatu edo erreklamatu ahal izateko.

Erreklamazio guztiak aztertu ondoren, **gaur, 2023ko ekainaren 2an, 12:00etatik aurrera**, ordezkapen-zerrendetarako hautagai bakoitzak **berriro izango du eskuragarri [Hezigunea](#)-n** 2023-2024 ikasturte-hasierako esleipenetan lehentasunezko esleipen-eskubidea emango dion behin betiko lanpostuaren tipologia.

2023ko maiatzaren 19an argitaratutako lanpostuaren behin-behineko tipologiaren aurkako erreklamazioa aurkeztu duten pertsona guztiek **2023ko ekainaren 2an, 12:00etatik aurrera, beren erreklamazioari emandako erantzuna** ikusi ahal izango dute. Horretarako, [Hezigunea](#)-tik berriro sartuko dira erreklamazioa aurkezteko erabili zuten formulariora. Ohar honekin batera, erreklamazioari emandako erantzuna ikusteko jarraitu beharreko prozedura zehazten duen dokumentu bat erantsi dugu.

Erreklamazioari emandako erantzunaren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzari, hilabeteko epean, ohar hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

**DERECHO DE ADJUDICACIÓN  
PREFERENTE**

Publicación definitiva de la tipología de puesto que otorga a cada persona candidata el derecho de adjudicación preferente en las adjudicaciones de comienzo de curso 2023-2024

Con fecha 19 de mayo de 2023 se publicó en el portal Hezigunea de cada persona candidata a listas de sustituciones la tipología de puesto provisional que le otorgaría un derecho de adjudicación preferente en su centro en las adjudicaciones de comienzo de curso 2023-2024. Además, se otorgó un plazo de reclamaciones a través del formulario habilitado igualmente en [Hezigunea](#) para poder alegar o reclamar cualquier error apreciado.

Una vez analizadas todas las reclamaciones, **desde hoy 2 de junio de 2023 a partir de las 12:00** horas cada persona candidata a listas de sustituciones tendrá **disponible de nuevo en [Hezigunea](#) la tipología de puesto definitiva** que le otorgará un derecho de adjudicación preferente en su centro en las adjudicaciones de comienzo de curso 2023-2024.

Todas aquellas personas que han presentado reclamación contra la tipología provisional de puesto que se hizo pública el 19 de mayo de 2023, podrán ver **a partir del 2 de junio de 2023 a las 12:00h la contestación a su reclamación** accediendo desde [Hezigunea](#) de nuevo al formulario a través del cual presentaron su reclamación. Junto con esta nota adjuntamos un documento en el que se detalla el procedimiento a seguir para ver la contestación a la reclamación.

Contra la contestación a la reclamación efectuada, podrá interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejería de Administración y Servicios, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de junio de 2023  
Vitoria-Gasteizen, 2023ko ekainaren 2an.

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARITZA  
DIRECCIÓN DE GESTIÓN DE PERSONAL